

ARABAKO ESI ETA BURU-OSASUN SAREA

2017ko kontratazio txostena

2018ko apirila



www.lab.eus

Esku artean duzun LABen txosten honek ARABAKO ESI zein BURU-OSASUNEKO SAREAN kontratazioari dagokionez dagoen nahaste-borrastea azaltzea du xede. Honetaz gain, langileei Erakunde hauetan ematen den eta azpajokoak errazten dituen kontratazio mota honen berri eman, kontrolerako gaitasuna kentzen duena, lan eskubideak murriztuz eta publikoa den osasun egitura ahulduz.

Kontratazio txostena 2017

ARABAKO ESI ETA OSASUN MENTALEKO SAREA

1. Txosten honen zergatia

Arabako ESIan eta Arabako Osasun Mentaleko Sarean hautatu ordezkariok salatu nahi dugu gure zentroetan gauzatzen den kontratazio mota hau. Behin-behinekotasun handiak, kontrol ezak eta egoeraren arabera egindako kontratuak gehiegi erabili izanak eragiten dute babesgabetasuna ia erabatekoa izatea.

2. Kontratazio motak

67 kontratazio mota daude, kontratatzeke zio guztiak eta bakoitza justifika daiteke, amatasun baja zein hainbat oporren, eszedentzien, euskara ikasteko liberazioen, etxez aldatzeko baimenen,... estaldurak. Kontratazio guztiak zio bati lotuak daude, zerbitzuaren beharrak eragindakoak edota egoeraren arabera bete behar diren prestazioak izan ezik. Txosten honetan kontratatzeke bi mota hauek aztertuko ditugu, irizpide jakin bati lotuak ez daudelako.

3. Zer dakigu egoeraren araberrako kontratuez?

“Egoeraren araberrako” kontratuak salbuespenez erabili beharko liratekeen kontratu motak dira, aurreikus ezin daitezkeen egoerei aurre egiteko. Aurten 67 kontratazio mota erabili dira, baina bi kontratazio motak eramango dute gure arreta:

*Ahaldundu
zaitez eta
eskatu
dagozkin
eskubideak*

...

LAB sindikatuak dei egiten die Osakidetza langileei ahaldun daitezen eta kontratazioan antzeman dezaketen irregulartasunak salatu. Abaguneko kontratuek osasun egitura kaskartzeara eta behin-behinekotasuna handitzeaz gain, kalitatea urritzen dute, kontratazioa gai ilun eta kontrolagaitz bihurtuz. Langile guztiei dei egiten diegu jabetu daitezen abaguneko kontratuen ondorioez eta txosten honen berri eman diezaietela lankideei, eta era berean, azter dezatela zein egoeretan lotzen diren kontratuak, horrela, eman litezkeen irregulartasunak salatu ditzagun.

3.1 “Abagunearen arabeko zerbitzuen gauzatzea”

Kontratu mota honetan kontratazioak oso motzak izan ohi dira, normalki egun gutxi batzuetakoak, maiz unean uneko beharrei erantzunez eginak; kontratu hauetako asko luzatu dira 2017. urtean.

“Abagunearen arabeko” behar hauek behar iraunkorrak direla defendatzen dugu eta behin-behineko kontratu mota hauek eginez, estrukturalizazio prozesuak mugatzen dira. Unean uneko behar hauek, askotan, subjektiboak izan ohi dira, eta erdi-mailako arduradunaren menpe daude. Kontratazio mota honetan ematen den erabateko kontrol ezak tarte handia uzten dio iruzurrezko erabilerari. Ez dugu esaten lanpostu horiek beharrezkoak ez direnik, denok dakigu beharrezkoak direla, baina bai erdi-mailako arduradun batzuek lanpostu hauek modu interesatu batean kudeatzen dituztela. Lanpostu hauek iraunkorrak diren heinean, EPE zein mugikortasun prozesuetara atera behar dira.

3.2 “Zerbitzuaren beharrak betetzeko”


Kontratu hauek, praktikan, egiturako plantillan (kodearen menpe dauden lanpostuak) sartu beharko liratekeen lanpostuak betetzeko erabili ohi dira, askotan, urte osoa irauten duten kontratazioak direlako. Izenak berak adierazten dituen lanak betetzen dituzte: egituran betetzen ez diren zerbitzuari dagozkion beharrak, hots, Lan Eskaintza Publikoetan agertzen ez diren eta mugikortasun prozesuetan sar ez daitezkeen arren, zerbitzuaren jarduera zuzena izan dadin beharrezkoak diren lanpostuak dira, eta izatez, 2017. urtean, kontratu hauen %100 luzapenak dira, 3.1 puntuan ikusi ditugun kontratuenak, hain zuzen ere.

“Zerbitzuaren beharrak betetzeko” egiten diren kontratuen %100 urte luzez luzatzen da, Osakidetza egiturako beharrak direla onartu gabe. Lanpostu hauek EPEra atera beharko lirateke, eta lanpostuak behin-betikoz finkatu beharko lirateke, OSIaren jarduera zuzena egiteko beharrezkoak direlako.

Zergatik ez dira lanpostu hauek LEPr ateratzen?

Korapilatsua da, baina erosoagoa da “egiturako langileei” ez dagozkien lanpostuei eustea, haien desagertzea errazten duelako; hots, lanpostu horiek guztiak desagerraraz zitzaketen eta Osakidetza plantillak ez duela murrizketarik jasaten esateari eutsi liezaioke, beti ere, egiturako plantillan agertzen den langile kopurua aipatuko dutelako. Izan ere, maiztasunez egiten dute hori. Ondorio bezala, besteak beste, azpikontratatzea errazten du.

4. Nola dihardu iruzurrezko zerbitzuak kontratazioan?



Oinarrian, hauxe dugu zerrenda hurrenkera faltsutzeko eta azkenean dagokion erdi-mailako agintaritzari hurbilenak diren pertsonak kontrata daitezen erabili den modurik ohikoena. Egiturazko kontratazioa egingo balitz, kontratazio iruzur honekin bukatuko zen.


5. Eta zein parametrotan dihardu Arabako ESIak?

Esan dezakegu, Arabako ESIan, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera kontratuen bidez egiturako 400 lanpostu baino gehiago betetzen direla, hots, 2.1 puntuan azaldu dugunez, lanpostu hauek “zerbitzuak dituen beharren” arabera egin kontratuen bidez betetzen ari badira ere, ez zaizkio egiturako plantillari gehitzen, nahiz eta urte osoan zehar luzatzen diren kontratuak izan eta zerbitzuen jarduera egokia bete dadin premiazkoak suertatu.

“Abagunearen arabera” kontratuak noiznahi lotzen dira, eta askotan erabili ohi dira kontratazio zerrenden hurrenkera faltsutuz langile guztien eskubideak zanpatzeko, maila ertaineko agintari askok kontratatzeko izan ditzaketen irizpide subjektiboak erantsiz.

2017. urte honetan, Arabako ESIan lotu den kontratuen %51a bi kontratazio mota hauek oinarritu da batez ere; hauek langileen eta hiritarren eskubideak urratzen dituzte, osasun egitura argaltzen delako, eta hortaz, zerbitzua beraren kalitatea.


Ez dira beharrezkotzat hartzen berez beharrezkoak diren lanpostuak, eta gainera, kontratazioan eman daitekeen iruzurra errazten da



OSI ARABA

14.978 kontratu lotzen dira guztira.

8.054 abaguneko kontratuak eta 6.924 beste mota batekoak.




ARABAKO OSASUN-MENTALEKO SAREA

1.669 kontratu lotzen dira guztira.

491 abaguneko kontratuak eta 1178 beste motatakoak.

6. Hilabete batzuetan gehiago erabili ohi da kontratazio mota hau?

Lehenengo eta behin, esan behar da kontratu mota honen erabilera antzeko parametroetan dagoela urtean zehar, nahiz eta badakigun udako kontratazioa abagunearen arabera kontratazioetatik har ginezakeela ez dugu halakotzat jo nahi izan, datuak aldatuko lituzkeelako. Udararen egindako kontratazioak balio izan du lanean ari diren pertsonen bajak betetzeko; horregatik ez deritzagu “zerbitzuaren arabera egin” edo “abagunearen arabera zerbitzuak burutzeko” kontratuen ezaugarri berak dituen. Lehen azaldu dugunez, Arabako ESIak 67 zergati darabiltza kontratatzen, horien artean, amatasun baimenen, liberazioen, eszedentzien, bajen,... estaldura. Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren eta abagunearen arabera egindako kontratazioak kontratazio guztien %54 dira. Txosten honen bidez salatu nahi dugu kontratazio mota hau gehiegi erabiltzen dela, antolakuntzak zeregin arrunterako behar dituen ehunka lanpostu egiturako plantillan sartzen ez dituen, sistema sanitarioa ahultzen duelako eta lan harremanetan, mendekotasuna handitzen eta sustatzen duenez, erraztasun handiagoz iruzurra erabil daitekeelako.



Bi grafikoetan ikus daitekeenez, Arabako ESIak, 2017. urtean, 14.978 kontratazio egin ditu guztira, horietako 8.054 abagunearen arabera egin dira, eta horrek guztiaren %54a da. Esan ginezake hau guztia kudeatzea nahaste-borrastea dela eta zalantzarik gabe, egiturazkoak eta hurrengo LEPei gehitu beharko litzaizkien lanpostu pila ezkutatzen ari direla. Zalantzarik gabe, 2018. urterako deitu den azken LEPak ez du, inondik inora, beteko gure ESIrako behar diren lanpostuak jardunbide honekin behin betikoz amai dezagun, zerbitzuaren kalitatea hondatzen dutenak, jasangaitzak diren behin-behinekotasun mailak normaltzen dituztenak eta lan eskubideak urratu, kontratazio mota hauetan bidegabekeria agerikoa delako.

7.Horren larria da kontratazio mota hau?

Larria da, bai. Hurrengo zerrendan ikus dezakezuenez, ESIan kontratatzeko 67 zergatiak eta arrazoi bakoitza erregistratzen dituen kontratu kopurua agertzen dira.

Hainbat absentzien estaldura	1391
Plaza hutsa betetzea	175
Plaza hutsa betetzea Izendapen Askea M-INT	3
Unean unean, bermatu estaldura betetzen dela	1
Noiznahi eta etengabe betetzen dela bermatu	85
Zerbitzuaren premiak	2988
Lanaldia murriztearen prestazio osagarria	177
Prestazio osagarria. Lanaldi murrizketa	29
Prestazio osagarria. Lanaldi murrizketa	3
Itxaron zerrenden murrizketa	29
Aldi bateko, abagunearen arabera edo aparteko prestazioak	3385
Laneko istr/gaixotasunen ordezkapena	9
Ikastaroetan parte hartzeko ordez.	80
Azterketetan parte har. ordez.	25
Batzarretan parte har. ordez	6
Norberaren arazoak betetzeko ord.	643
GKEtan laguntzeko ord.	2
Ordutegia konpentsatzeko ord.	137
Kontsulta med. ordez.	29
CSE ordez.	11
d.f.s.c. ordez.	24
Amatasun atsedena. ordez.	11
Asteko atsedena. ordez.	60
ESZ/Autor.Espz. Seme-alaba zaintzeko ordez	6
Seme-alabak zaintzeko eszed. ordez.	54
Senide baten heriotzak eragin ordez .	56
Sindikatuak orduak ordez	70
Aldi baterako ezintasunak ordez.	883
Euskara ikast. Liberazioa ordez.	53
Zaintzara bideratu lanaldia-lizentzia ordez.	1
Senide baten ezkontzara joateko ordez	4
Etxez aldatzeko ordez	14
Aitatasun ordez.	7
Senideak zaintzeko 50 ordutako baimenaren ordez.	78
Zorurik gabeko urte < 1 ordezkatzek	32
Behin-behineko langil. ordez.	1078

PIT ordezkapena	6
Senideak zaintzeko lanaldia murrizteko ordezkapena	1
Haurdunaldiko arriskuen ordez.	14
Gaixotasun larria dela-eta seme-alabak zaintzeko lanaldia murrizteko ordezkapena	2
Adingabeak/elbarriak zaintzeko LM	77
Oporrak ordezkatzeko	611
Izaera publikoko betebeharrak-saihetsezinak ordezkatzeko	48
Senide baten gaixotasun larriak eragin ordezkapena	566
Seme-alabak zaintzeko ESZ/AUTO BEREZIA	1
Senideak zaintzeko 50 ordutako baimena ordezkatzeko	54
Senideak zaintzeko baimena ordezkatzeko	106
Norberaren ezkontza baimena ordezkatzeko	1
Edoskitze orduak pilatu direlako ordezkapena	71
Norberaren zereginak betetzeko ordezkapenak	18
Zerbitzu komisioak betetzeko ordezkapenak	67
Errelebu kontratua ordezkatzeko	40
Senideak zaintzeko eszedentziaren ordezkapena	3
64 urte betetzean erretiro hartzeagatik ordezkapena	23
Seme-alaba zaintzeko lanaldi-murrizketa ordezkatzeko	26
Ezgaitasuna baloratzeko ordezkapena. GSIN	9
Urte batez soldatarik gabeko baimena ordezkatzeko	4
Soldatarik gabeko baimena ordezkatzeko	1
Erdi-mailako arduraduna izendapena ordezkatzeko	14
Errelebu kontratua ordezkatzeko	11
Sindikatuak liberazioa ordezkatzeko	28
Barne sustapena ordezkatzeko	38
Lanbide hobekuntza ordezkatzeko	1

8. ETA NIRE KATEGORIA? ZEIN KONTRATAZIO MAILARI EGITEN DIOT AURRE?

ESI ARABA KATEGORIA (KONTRATAZIO BOLUMENAREN ERABERAKO ORDENA)	URTEKO KONTRATU KOPURUA	KONTRATAZIO KOIUNTURALAREN %
ERIZAINZTA	4869	%55
ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEAK	3039	%54
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA ETA ERABILTZAILEAREN LAGUNTZA	1785	%55
FAKULTATIBOAK	1361	%83
ZERBITZUETAKO OPERARIOA – Zerbitzu Orokorrak	1274	%35
ZELARIA	661	%46
ERRADIODIAGNOSI-TEKNIKARIA	358	%40
FISIOTERAPEUTA	323	%27
LABORATEGI TEKNIKARIA	268	%54
FARMAZIA LAGUNTZAILEA	152	%57
SUKALDARIA	143	%41
UNITATE ESPEZIALIZATUTAKO ZELARIA	116	%31
OF. MANTENIMIENTO INSTALACIONES	67	%40
EMAGINA	57	%28
ANAT. PATOLOGIA ETA ZITOLOGIA TEKNIKARIA	53	%62
ARDURA BEREZIKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	51	%0
ERRADIOTERAPIA-TEKNIKARIA	50	%50
DIETETIKA TEKNIKARIA	44	%73
OSASUN MENTALEKO ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA	43	%70
ZERBITZUETAKO LANG. - BILTEGIKO MANTENTZE LANAK	43	%14
OSASUN MENTALEKO ERIZAINA	29	%62
OPTIKA ETA OPTOMETRIA DIPLOMADUNA	24	%96
TERAPEUTA OKUPAZIONALA	23	%0
F.E. FARMAZIA OSPITALARIO TEKNIKARIA	19	%63
INFORMATIKA TEKNIKARIA	19	%47

ESI ARABA KATEGORIA (KONTRATAZIO BOLUMENAREN ERABERAKO ORDENA)	URTEKO KONTRATU KOPURUA	KONTRATAZIO KOIUNTURALAREN %
ADMINISTRARIA	17	%35
ELEKTROMEDIZINA INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA	14	%79
GIZARTE-LANGILEA	9	%11
ENF. ESPECIALISTA (A EXTINGUIR)	8	%0
OSASUN-DOKUMENTAZIOKO TEKNIKARIA	8	%88
PSIKOLOGO KLINIKO TEKNIKARIA	7	%100
ZELARIEN ARDURADUNA	4	%75
ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAREN ATALBURUA - B	4	%100
GOI-MAILAKO EKONOMIA-TEKNIKARIA	4	%100
ZERBITZU OROKORRAK GIDARIA	3	%67
ODONTOLOGIA TEKNIKARIA	3	%0
OSASUN LABORALEKO ERIZAINA	3	%0
MANTENTZE LANAETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	3	%67
ANTOLAKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	3	%100
ERIZAIN ADJUNTOA	2	%0
ELEKTRIZITATE MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	2	%0
ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	2	%0
SEGURTASUN ETA OSASUNEKO PREBENTZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2	%50
ZERBITZU OROKORRAK AREA BURUA	1	%0
EKIPO BURUA ADMINISTRARIA	1	%0
OSASUN ATALEKO BURUA	1	%0
ZUZENDARITZAREN IDAZKARIA	1	%0
GAINBEGIRALEA	1	%100
EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI- MAILAKO TEKNIKARIA	1	%0
GUZTIRA	14975	54%

MAILA - ARABAKO BURU- OSASUNA	URTEKO KOIUNTURALAREN %
ADMINISTRARIA	%22
OSASUN MENTALEKO ERIZAINZAKO LAGUNT	%22
ADMINISTRAZIO ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUKO LAGUNTZAILEA	%59
FARMAZIA-LAGUNTZAILEA	%21
ZELARIA	%100
OSASUN MENTALEKO ERIZAINA	%41
F.E. PSIKIATRIA-MEDIKUA	%85
F.E. HAURRENTZAKO PSIKIATRIA-MEDIKUA	%83
F.E. PSIKOLOGO KLINIKO TEKNIKARIA	%38
F.E. FARMAZIA OSPITALARIO TEKNIKARIA	%0,0

MAILA - ARABAKO BURU- OSASUNA	URTEKO KOIUNTURALAREN %
ZERBITZU OROKORRETAKO ATALBURUA	%0,0
OSASUN MENTALEKO MONITOREA	%0,0
INSTALAZIOAK MANTENTZEKO OFIZIALA	%48
PINTURA MANTENTZEKO OFIZIALA	%0,0
ZERBITZUETAKO OPERARIOA – Zerbitzu Orokorrak	%27
ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	%0,0
TERAPEUTA OKUPAZIONALA	%44
GIZARTE-LANGILEA	%0,0
GUZTIRA	%30

9. ZENBAT LANPOSTU BETETZEN ARI DA LAN ESKAINTZA PUBLIKO ETA MUGIKORTASUN PROZESUETARA ATERA BEHARKO LIRATEKEENAK, ZERBITZUAK DITUEN PREMIEN ARABERAKO KONTRATUEN BIDEZ?

Zehaztasunez erantzun ezin daitekeen galdera soil batez ari gara. Txosten honetan lan eskaintza publikoetan eta mugikortasun prozesuetan agertu beharko luketen eta zerbitzuak dituen premien arabera lout eta urte osora luzatzen diren kontratuekin bete ohi diren lanpostuak aintzat hartzen ditugu.

Hala ere, badakigu jaso dugun kopurua, benetakoaren alderatuz, gutxienekoa dela, lanpostu askori jarraipena egitea zaila delako, hainbat egoera suertatzen direla-eta tarteko. Lanpostu hauen kode edota identifikazio ezak eragozten digu haiek ezagutzea, lanpostua betetzen duten pertsonak aldatzen dituztelako. Hau ez da harritzekoa, askotan, adibidez, dagokion lanpostua betetzen duenari interinitateren edo bitartekotasunen bat esleituko balitzaio, lanpostuaren arrastoa galduko genuke, eta aurrerago zeregina beste norbaitek beteko balu ere, izendapen berriztat agertuko litzateke, eta horrek eragotziko liguke lanpostu hori egiturazko ezkutuko lanpostutzat hartzea.

400

baino gehiago

Hurrengo Lan Eskaintza Publikoan
Arabako ESIa 400 lanpostu
gehiagorekin osatu beharko
litzateke, beharko litzatekeena
baino kopuru txikiago batez ari
garela onartuta ere


Hau, azken lan eskaintzak aski ezak izan direnaren eta osasun egitura halabeharrez kaskartzen ari denaren adierazgarri dugu. Azken lan eskaintza publikoek, ez betetzekotan, ez dute betetzen erretiroen ondorioz berriztu beharreko langile kopurua ere. Prozesu hauek langileen %60ari eragingo diote datozen 15 urteotan.

Lan Eskaintza Publiko fartsa hau sinatu duten sindikatuak gogoeta egin beharko lukete esaten dutenaz, adibidez, behin-behinekotasuna %5era murriztuko dutela, gezur borobila delako eta kopuruak muturreraino bihurrituta ere, kopuru hori lortu ezin daitekeelako. Lan baldintzak ahalik eta gehien kaskartzen ari den, eta zerbitzuaren kalitatea gaur egun arte ezagutzen ez ziren mailetara apaltzen ari den erakunde bati, aurpegia garbitzeko egiten den propaganda hutsaz ari garelako.

10. ETA NOLA KUDEATZEN DA CURRICULUM BIDEZ EGINDAKO KONTRATAZIOA?

Bada beste kontratazio mota kontrolik ez daukana; kontratazio-zerrendak amaitzen direnean egiten direnaz ari gara. Hauetan ez dago ekiteko protokolorik. Gehienetan, gainbegirale berak egin ohi du kontratazioaren %80a. Ez dago merituen arabera irizpiderik ezta hizkuntza-profilen arabera ere. Irizpidea guztiz subjektiboa da, eta horrengatik, kontrolagaitza.


Kurrikulumen bidezko kontratazio gehiena erizainak eta erizaintzako laguntzaileak kontratatzeke erabiltzen da. Hona kontratazio mota honen datu guztiak:



ETA HONAKOA IZANGO DA MAILAKAKO BANAKETA:

MAILAK	IRAILA ARTE GUZTIRA	Ahitutako poltsak (pertsonaleko sailak deituta)	Gainbegiraleak berak deituta	% Gainbegiraleak berak deituta
ERIZAINTZA	93	0	93	100%
ANATOMIA PATOLOGIKOA	1	1	0	0%
ERIZAINTZA LAGUNTZAILEA	154	4	150	97%
FARMAZIA LAGUNTZAILEA	7	6	1	14%
SUKALDARIA	42	41	1	2%
Barrutiko Fakultatibo Espezialista APARATU DIGESTIBOA	1	1	0	0%
FISIO	38	38	0	0%
ELEKTROMEDIZINA INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA	7	7	0	0%
ANATOMIA PATOLOGIKOAN TEKNIKARIA	10	10	0	0%
DIETETIKA TEKNIKARIA	9	9	0	0%
DIETETIKA ETA NUTRIZIO TEKNIKARIA	1	1	0	0%
ERRADIOTERAPIA TEKNIKARIA	4	4	0	0%
TEL	17	14	3	18%
TER	8	8	0	0%
TERAPEUTA OKUPAZIONALA	1	1	0	0%
MAILA GUZTIAK (CURRICULUM)	393	145	248	63%

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, maila batzuetan, ia kontratazio guztien %100a gainbegiraleak berak deituta egin ohi da, gainera hauek dira kontratazioaren zati handiena biltzen dutenak.



11. Euskara

Osakidetzaren II. Euskara Planak erakundea euskalduntzeko irizpideak markatzen ditu, baina irizpide hauek egiturazko lanpostuak bakarrik hartzen dituzte kontuan. Kode bat daukan lanpostu bat betetzeko deitzen badizute, II. Euskara Planak jarri dizkion irizpideak exijituko dizkizutela. “Zerbitzuen beharrak betetzeko” eta “abagunearen arabera zerbitzuen gauzatzeko” kontratu hauek ez daukate loturarik kode batekin, beraz, II. Euskara Planak ez ditu kontuan hartzen.

Abagunearen arabera edo zerbitzuen beharrak betetzeko lanpostu hartek ere ez dauka profilik. Hortaz, eman liteke egoera bat euskara planaren arabera hizkuntza profilaren %100ean exijitzen dituen unitate baten, praktikan, egituraren sartutako plazek soilik beteko dutena eta zerbitzuaren arabera beharrekin betetako lanpostuek ez. LABek konprobatu duen zerbait da. Gainontzeko aldi baterako kontratuetan %30ak dauka bigarren Hizkuntza Eskakizuna edo goragokoa, eta abagunearen arabera eta zerbitzuen beharretarakoan %14ak.

12. Ondorioak

Kontratatzeko kudeaketa honek osasun egitura ahultzen du, behin behinekotasuna sustatzen du, langileak morroi gisa jokatzera eramaten ditu du bere gainbegiraleekiko, azpikontrataziorako ateak zabaltzen ditu, eta gure osasun sistemari aipua kentzen dio kalitatea murriztuz.

Langile eta erabiltzaileok gara, erantzunkizunez kontratazioan kudeaketa egoki bat exijitu ditzagun iruzur guzti hauekin amaitu arte.